

KORUKO AMA BIRJIÑARI

AGERRAZO zaituzte Donostiyako kale ta jeitan barrena; ta gogoz, deritzat, ibilliko ziñala, nere Ama maitia, zedorrek ongi ezagutzen dituzun tokiyetan. Etzitzaizun baña Donostiko alderdi berriya ezaguna: *Bulebarretik* onuzko aldia egutera ta toki goño zaizu, bañan oraindik etzenekiyen aruntzagoko kale zuzenen berri.

Zure Elizako jartoki ederrera biurtu ziñanian, galdetuko nizun, zaletu ote zitzaizkizun kale berri oyek; baña eztago ortaz zer buru-galtze, badakit-eta aruzko t'onuzko donostiarrak, biyotzari dakaryozun indar geyenaz, maitatzen dituzula.

O Ama zeruko Erregiña! Zu ere erregintzat nai zaitugu, t'aukera zazu erri maite au, zeruko antza-isperi bat berderik izateko.

Donostiya ederra dala diyote, ta guk ere donostiar geranok, artzakotzat daukagu. Baña, zer edertasun izan dezake, zuk eman dezayokezuna ez izatekotan? Beste edertasunak irrimendutzen dira gaur beñepin; oyek ordia lore izan bañan lenago orbela izan oi dira.

Zure maitale geranok eztegu nai orbelaz ezerchore jantzi: lorez apaindu nai ditugu gure izakera, gogo ta biyotzak, t'edertasunaren lorien baratzen zu zera noski Lendariya, zu noski bertako Zaindari donea, ta zedorrek bakarrik darabiltzkizu lorategiko urrezko giltzak.

Ba-ote zekiten lengo donostiar zarrak, nolataz tajutu zitekian beren erri maitearen onkarripenik ugariyena? Bai noski. Torretarako zedorri, Ama maitia, aukeratu zinduzten, ta zuk batere ukapenik beñere eratu gabe, eman ziñizkiyen donostiar aurretiyai makiña doai, mesede t'onbide.

Edozer estualdi edo arbiñetan zuregan ezarri oi zituzten negarrezko

begiyak: sute aunditan zedorrengan zeukaten icharopen biziya, t'etzekiten, zu gabez ezertan ibiltzen, ume adin guchikuak, bere amachoren esku artezkari gabe, oinkadarik ematen eztakiyen bezela.

Chori chipiak, lenbiziko lumetan arrotu ezkeroz, egaldi mochak egin oi ditu: geyenaz ere kabitik aurrian ikusi oi duen adarreraño: andik ordia lenbailen kabira, ezta geotarontz ausarditzen. Zure seme maitale geranoi orrelakoz gertatu oi zaizkigu egaldiyak. Gaztelupeko Eliz ederra kabiya zaigu donostiarrai: eztegu nai ortik urrutira joan; geyenaz ere aurreko adarren batera, bañan laster ordia zure Irudi ederraren oinpera biurtzen gera, bai oriše, orkochiak geralako, zure maitetasunak azi ginduzalako, ta semiak amaren inguru-inguru bildu biar dutelako.

Aita Franzisko Donearen irugarrendarrak atera zaituzte kalerik-kale. Orretaz Zureganako maitetasunaren agerraldiya eman dute: inguru zeneukan osteak agur egin dizu, ta Donostiyak ere bai. Onek errege t'erregiñai abegi ona egiten daki, baña zuri berezi ta maitena, erregin guziyen Erregiña baizera!

R. INZAGARAY,

Ap. donostiarra.

